



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2015eko bigarren
hiruhilekoa

aurkibidea: edukiak eta emaitzak

a. aurkezpena	3
b. euskal kontsumitzaileen konfiantzaren bilakaera	7
c. euskal kontsumitzaileen konfiantzaren osagaiak	11
d. euskal kontsumitzaileen erosketa-erabakiak	17
e. eranskina	23
<hr/>	
<i>Fitxa teknikoa</i>	<i>27</i>

a) aurkezpena

- 1. kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da? 4**
 - 2. zer esan nahi du indizearen bilakaerak? 5**
 - 3. edukiak 6**
-

1. kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Hainbat eragilek datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) ekonomia orokorraren egoera
- 2) etxeko ekonomiaren egoera
- 3) langabeziaren bilakaera
- 4) etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea



¹ *Consumer Confidence Indicator*; dokumentu honetan, familien konfiantza-indizea erabili dugu, kontsumitzaileen iritzia berri emateko.

2. Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobetorainoko bitartean) sailkatzen da.

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- *ekonomia orokorrarena*
- *etxeko ekonomiarena*
- *aurrezteko gaitasunarena*
- *langabeziaren bilakaerarena*

Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.
- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek

Baikortasuna
Ezkortasuna

3. edukiak

Txosten honetako edukiak hiru multzotan sailkatu ditugu, txostena aurkezteko lehen honez gain.

Konfiantza-indizea

Familien Konfiantza Indizearen bilakaera eta estatuko, EBko eta erreferentziazko beste herrialde batzuetako emaitzen alderaketa.

Konfiantzaren osagaiak

Familien konfiantzaren osagaiak. Ekonomia orokorrari, etxeko ekonomiari, aurrezteko gaitasunari eta langabeziaren bilakaerari buruzko indize partzialekiko emaitzen bilakaera.

Erosketa erabakiak

Pertsonen kontsumo- eta inbertsio-erabakien aurrean bizi dituzten egoeren berri ematen duten gai osagarriak.

Hauek balioztatzen ditu: prezioek izan dezaketen bilakaera, erosteko unearen egokitasuna (orokorrean) eta etxerako erosketa garrantzitsuak (300 €-tik gorakoak) egiteari edo etxebizitza nahiz autoa erosteari buruzko igurikimenak.

Emaitzen eranskina ere barneratzen da.


b) kontsumitzaileen konfiantzaren bilakaera – 2015eko II. hiruhilekoa

- 4. euskal kontsumitzaileen konfiantzak hobetzen jarraitzen du.. 8**
 - 5. Estatuarekin eta EB-28rekin bat etorriz 9**
 - 6. Alemanian eta Erresuma Batuan ere, baina ez Frantzian10**
-

4. euskal kontsumitzaileen konfiantzak hobetzen jarraitzen du


2015eko bigarren hiruhilekoan euskal familien konfiantza-indizea -4 balioan dago, aurreko hiruhilekoan lortutako balioa baino bost puntu gorago (-9 orduan).

Emaitza horrek indizearen pixkanakako errekupeazioa sendotu du, dagoeneko ikur positiboaren balioetatik oso hurbil, eta EAEko familietan gero eta itxaropen hobeak izatea dakar.



5. Estatuarekin eta EB-28rekin bat etorritz

Euskal kontsumitzaileen konfiantzan 2015eko bigarren hiruhilekoan izandako hobekuntza (-4, 5 puntu gehiago) bat dator Estatuan izandako bilakaerarekin, haren indizea dagoeneko balio positiboetan baitago (3, 4 puntu gehiago). EB-28 osoan kontsumitzaileen konfiantzak ere hobera egin du (-3, puntu bat gehiago).




* EB-28 multzoaren eta Espainiaren 2015eko II. hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira, eta apirila eta maiatzeko datuen batez bestekoari dagozkio.

6. Alemanian eta Erresuma Batuan ere, baina ez Frantzian

Euskal familietako konfiantzan izandako errekerazioak Alemaniako eta Erresuma Batuko konfiantza-indizearekin zuen distantzia laburtu du, eta dagoeneko baikorrak diren balioetan dago (3 eta 4, hurrenez hurren). Aldiz, Frantziako etxeen konfiantza (-17) balio benetan ezkorretan mantentzen da, aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntzarik gabe.

Konsumitzailearen konfiantza. EAE eta erreferentziako herrialdeak



* Frantziaren, Erresuma Batuen eta Alemaniaren II. hiruhilekoak datuak behin-behinekoak dira, eta apirileko eta maiatzeko datuen batez bestekoari dagozkio.


c) euskal kontsumitzaileen konfiantzaren osagaiak

7. ekonomia orokorrekiko igurikimenen errekupeazioa	12
8. eta esperotako hobekuntza langabezian	13
9. ezkortasun baxuagoa etxeko egoera ekonomikoari buruz	14
10. baina aurrezteko gaitasunaren igurikimenak okerrera egin du ..	15
11. balantze positiboa, eta konfiantza hobetzea dakar	16

7. ekonomia orokorrarekiko igurikimenen errekupeazioa

Ekonomia orokorrarekiko euskal familien igurikimen-indizea 11 puntu hobetu da aurreko hiruhilekoarekiko eta balio neutralean dago.

Hau da, famili gehienek datozen hamabi hilabeteotan ekonomia orokorrak izango duen bilakaerari buruz ezkorrak izateari utzi diote, eta egungo unearrekiko aldaketarik ez dela izango uste dute gehienek.



8. ... eta esperotako hobekuntza langabezian

Langabeziaren bilakaerari buruzko igurikimen-indizeak ere 11 puntu hobera egin du urteko lehen hiruhilekoarekin alderatuta eta balioa 8koa da.


Langabeziaren bilakaerarekiko euskal familien balorazioa nahiko baikorra da, datorren urtean zehar langabezia jaitsi egingo dela diotenak ugaritu egin baitira, igo egingo dela diotenekin alderatuta.



9. ezkortasun baxuagoa etxeko egoera ekonomikoari buruz

Etxeko ekonomiaren bilakaerari buruzko igurikimen-indizeak 4 puntu egin du gora aurreko hiruhilekoarekin alderatuta eta balio nahiko ezkorretan dago (-5), nahiz eta posizio neutroetatik gero eta gertuago egon.


Azken bi hiruhilekoen bilakaera-profilak familien egoeraren errekupeazioa finkatzen ari dela adierazten du, egoera ekonomikoa okertuko zaiela uste duten etxeen proportzioa gutxitzen doan heinean.



10. ... baina aurrezteko gaitasunaren igurikimenak okerrera egin du

Euskal familien aurrezteko igurikimen-indizeak 6 puntu egin du behera 2015eko lehen hiruhilekoarekiko eta -19 balioan jarri da. Horrek agerian utzi du aurrezteko gaitasunarekiko ezkortasuna nagusitzen dela.

Igurikimena okertzea, etxeetako konfiantzaren gainerako osagaietan – ekonomia orokorra eta enplegua, eta etxeko ekonomia – erakutsitako errekupeazioarekin kontrastean, bat dator aurrezkia sortu ahal izateko oinarria (enplegua eta errentak) finkatzeko beharrarekin.



11. balantze positiboa, eta konfiantza hobetzea dakar

Euskal familien konfiantza-indizearen lau osagaiak kontuan hartuta, 2015eko bigarren hiruhilekoak balantze positiboa du, eta osagai bakarra dago negatiboan (aurrezkia).

Langabeziaren eta ekonomia orokorraren bilakaerari buruzko igurikimenetan aldeko emaitza dago (11 puntu gehiago) eta etxeetako ekonomiaren bilakaerari dagokionez espero dena baino neurritsuagoa da (4 puntu gehiago).

Familien aurrezteko gaitasunari buruzko igurikimenari dagokion indizeak ezkortasunean jarraitzen du (-19, 6 puntu gutxiago), eta aurrezkia berreskuratu ahal izateko oinarrietan (ekonomia orokorra, etxekoa, enplegua) hobekuntza sendotu behar dela islatzen du horrek.

Familien konfiantzaren indizea eta haren osagaiak. EAE



	<u>IIIH-14</u>	<u>IVH-14</u>	<u>IH-15</u>	<u>IIIH-15</u>	<u>Aldea</u>
Familien konfiantzaren indizea	-17	-19	-9	-4	+5
Ekonomia orokorraren indizea	-20	-21	-11	0	+11
Langabeziaren bilakaeraren indizea	-19	-17	-3	8	+11
Etxeko ekonomiaren indizea	-15	-15	-9	-5	+4
Aurrezteko gaitasunaren indizea	-15	-25	-13	-19	-6

d) euskal kontsumitzaileen erosketa-erabakiak


12. euskal familiek prezioen igoera handiagoa espero dute	18
13. erosteko unearen balorazioak hobetu gabe jarraitzen du	19
14. etxeetan dagoeneko ez da okertzen erosketen igurikimena	20
15. aldaketarik gabe etxebizitza eta kotxea erosteko igurikimenetan	21
16. kontsumoak geldituta jarraitzen du, errekupeazioaren joera argirik gabe	22

12. euskal familiek prezioen igoera handiagoa espero dute

2015eko bigarren hiruhileko honetan, EAEko hiru etxetik batek (% 31) uste du prezioak iaz baino azkarrago igoko direla (% +5) eta inflazio-erritmoa txikiagoa izango dela uste dutenen kolektiboa murriztu egin da (% 24, % -6). Bestalde, prezioen igoera azken urtekoaren antzekoa izango dela uste duten etheen proportzioa mantendu egin da (% 45).

Euskal familien igurikimen bateratua da prezioak azkarxeago igoko direla.

Zure ustez, nola haziko dira¹ prezioak hurrengo 12 hiletan?
(pertsonek / familien %-a)




¹ Azken hamabi hilabeteekiko

13. erosteko unearen balorazioak hobetu gabe jarraitzen du

Nola baloratzen duzu, oro har, etxeko artikulua erosteko egungo unea (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak,..)?

Ugaritu egin da (% 47, % +6) etxeko artikulua erosteko unea desegokia dela uste duten familien taldea. Berdin duela dioten multzoa mantendu egin da (% 39) eta murriztu egin da unea egokia dela uste dutenena (% 14, % -6).

Emaitza bateratua da euskal familien artean etxerako artikulua erosteko egungo unearen balorazio negatiboa nagusitzen dela.



¹ Azken hamabi hilabeteetako


14. etxeetan dagoeneko ez da okertzen erosketen igurikimena

Nolakoak uste duzu izango direla etxeke gastu edo erosketak (altzariak, etxetresna elektrikoak, etxeke konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan¹?

Etixerako erosketetan eta/edo gastuetan aldaketarik aurrez ikusten ez duten familien proportzioa mantendu egin da azken hamabi hilabeteekiko (% 67), baina murriztu egin da gastuak gutxituko dituztela uste dutenen multzoa.

Balantze orokorra ezkorra da (hau da, erosketak bolumena gutxituko dutela aurrez ikusi duten familien proportzioak gaitu egiten du gastua handituko dutela uste dutenena), baina aurreko hiruhilekoan baino zertxobait hobea.


Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan ¹
(pertsonek / familien %-a)



¹ Azken hamabi hilabeteekiko


15. aldaketarik gabe etxebizitza eta kotxea erosteko igurikimenetan

Etxebizitza erosteko asmoa (*hurrengo hamabi hiletarako*) (pertsonek / familien %-a)



Etxebizitza nagusia erosteko asmoa (lehen etxebizitzarako sarbidea edo aldaketa) geldirik dago. Kontsulta egindako familien % 2 eskas dira hurrengo hamabi hilabeteetan erostea baloratuko dutela uste dutenak.

Autoa erosteko asmoa (*hurrengo hamabi hiletarako*) (pertsonek / familien %-a)



Familien % 5ek inguruk adierazi dute nahikoa segurtasunez hurrengo hamabi hilabeteetan kotxea erosiko dutela. Proporzio hori ez da aldatu azken urte eta erdian.

16. kontsumoak geldituta jarraitzen du, errekupeazioaren joera argirik gabe

Hurrengo hamabi hilabeteetara begira, EAEko familiak aurreko hiruhilekoan baino ezkorrago daude inflazioarekiko; izan ere, prezioen bilakaeraren igurikimen-indizea -7koa da.

Bestalde, erosteko unearen balorazioari buruzko iritzi ezkorra nabarmentzen da, lotutako indizearen jaitsiera nabarmenarekin, -21 izatetik -33ra pasatu baita 2015eko bigarren hiruhilekoan.

Aldiz, etxerako erosketak egiteko igurikimen-indizea zertxobait hobetu da (-14tik -10era).

Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

	<u>IIIH-14</u>	<u>IVH-14</u>	<u>IH-15</u>	<u>IIIH-15</u>	<u>Aldea</u>	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	10	13	3	-7	-10	↓
Erosteko unearen balorazioa	-24	-29	-21	-33	-12	↓
Erosketak egiteko igurikimenak	-28	-17	-14	-10	+4	↑

e) eranskina

I. Laburpena: familien konfiantzaren indizea	24
II. Konfiantzaren indizea, ezaugarrien arabera	25
III. Beste adierazle batzuk	26

Laburpena: konfiantzaren indizea

III H-14 IV H-14 I H-15 II H-15

Kontsumitzaileen konfiantza-indizea (hurrengo 12 hilak)

- EAE
- Estatua*
- EB*
 - Frantzia*
 - Alemania*
 - Erresuma Batua*

-17	-19	-9	-4	
-8	-10	-1	3	
-7	-8	-4	-3	
-23	-23	-18	-17	
1	-1	1	3	
5	4	4	4	

Osagaiak: familien konfiantza. EAE (hurrengo 12 hilak)

- Ekonomia orokorra
- Etxeko ekonomia
- Langabezia
- Aurrezkia

-20	-21	-11	0	
-15	-15	-9	-5	
-19	-17	-3	8	
-15	-25	-13	-19	

Kontsumoari buruzko igurikemenen beste indize batzuk. EAE (hurrengo 12 hilak)

- Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak
- Erosteke unearen balioztapena
- Erosketak egiteko igurikimena

10	13	3	-7	
-24	-29	-21	-33	
-28	-17	-14	-10	

Erosketa handiak. EAE (hurrengo 12 hilak).**

- Etxebizitza
- Autoa

1,8	1,6	1,0	2,1	
4,6	4,5	3,4	3,5	

⇔ (± 2 puntuko aldea)

* II hiruhileko datuak apirila- maiatzeko batez bestekoari dagozkio.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko)

Euskal familien konfiantza, ezaugarrien arabera

III H-14

IVH- 14

I H-15

II H-15

Kontsumitzaileen konfiantza-indizea (hurrengo 12 hilak)

• EAE

Adin-mailak

- 25 eta 39 urte bitartean
- 40 eta 54 urte bitartean
- 55 eta 64 urte bitartean
- 65 eta 74 urte bitartean

Lan-egoera

- Landuna (soldatapekoa / norberaren konturakoa)
- Langabea
- Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea, ..)

Familia-unitatearen hileko errenta

- 1.700 €-rainokoa
- 1.701 eta 2.800 € bitartekoa
- 2.800 €- tik gorakoa

-17

-19

-9

-4



-13

-17

-6

-6



-13

-14

-11

-1



-23

-22

-10

-5



-25

-28

-9

-4



-9

-9

-4

0



-35

-39

-25

-16



-22

-24

-9

-3



-34

-36

-26

-16



-16

-19

-6

-3



7

6

8

13



Beste adierazle batzuk	II H - 14	III H - 14	IV H - 14	I H - 15	II H - 15(P)	(azkena)
BPG	1,3	1,5	2,1	1,8	-	I hir.
Familien kontsumoa	1,7	2,1	3,4	0,4	-	I hir.
Afiliazioa	0,7	-0,2	1,4	-0,1	0,5	Apirila
Erregistratutako langabezia	-1,4	-2,8	-0,2	1,8	-4,1	Apirila- maiatza
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	0,4	-0,5	1,0	-0,3	-	I hir.
Azalera handien salmenta-indizea	-2,1	1,6	-3,8	2,8	-0,6	Apirila
Etxebizitzen salerosketa	10,0	-7,6	-3,5	21,0	-	I hir.
Ibilgailuen matrikulazioa	15,9	-7,2	19,3	1,2	-1,8	Apirila- maiatza

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Azalera handien salmenta-indizea. Eustat. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa.
6. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
7. Ibilgailuen matrikulazioa. Faconauto. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziatzko datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, eskura dagoen azken datua (hil batekoa edo bikoa) hartzen da kontuan, azken aldakuntza kalkulatzeko. Erreferentziatzko datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatzeko da azken aldakuntza.

fitxa teknikoa

- *Inkesta EAEko 800 laguni egin zaie.*
- *Maiatzaren 2. eta 3. asteetan (2015eko II. hiruhilekoan).*
- *Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak.*
- *% 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea*

metodologia

- *Kontsumitzailearen konfiantza-indizea*
- *Europako Batzordea* http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm

Eskerrik Asko